

[Aldi berean emakume eta mendebaldar izatearen desabantailak enpresa japoniar handi batean integratzeko.]

Enpresa zen existentzia

Durduzaz eta Dardaraz

Amélie Nothomb

Itzultzailea: Joxan Elozegi

2003

Igela

Eta gauza handi bat ulertu nuen: “Japonian enpresa zen existentzia”. Ondorio horretara iristen zaigu Amélie, 22 urteko emakume gazte belgiarra, Japoniara emigratua, Tokioko enpresa handienetako batean, Yamamoto enpresan integratzeko etengabeko ahalegin eta ezinean. Goitik behera ierarkizatutako enpresa, non garrantzitsua obeditzea, ekimenik ez izatea eta, azken finean, ierarkia bera eta horren absurdotasuna diren.

Durduzaz eta dardaraz agertu behar dute behekoek goikoen, buruen aurrean, behiala Japoniako enperadoreak menpekoei exijitzen zien bezala. Eta gisa horretantxe aurkezten da Amélie bere goikoen aurrean. Baina sekula ez du asmatzen; ez daki –nahiz eta gertakariak eta istorioa bera aurrera joan ahala konturatzen joan-, ez daki berak uste baino askoz ere xingleagoa dela kontua. Ze, azken batean, oso xinglea baita enpresak eta goikoek zugandik espero dutena: esaneko izan eta txintik ere esan gabe obeditu. Sumisioa, erabatekoa gainera. Baina kosta zitzaion, ondo kosta ere, Amélieri horretaz konturatzea. Jabetu zenerako enpresako komun-garbitzaile izateraino eta umiliaziorik handienak jasan behar izateraino iritsia zen. Prozesu hori guztia kontatuko digu eleberri honetan. Garratz baina aldi beran umoretsu, umore garratza darabil Amélie idazleak Amélie protagonistak enpresa hartan egin zuen denboraldia eta horrek eragin zizkion gogoetak kontatzeko. Zeren berari gertatutakoaz gain, zehatz-mehatz, puntuz-puntu, alderdiz alderdi konparatuko baitizkigu mendebaldeko kultura eta kultura nipondarra eta kultura bakoitzaren ezaugarri eta balioak: ohorea, garbitasuna, ekimena izatearen garrantzia, obediencia, suizidioa, elkartasuna... Azken batean gizarte muturreraino indibidualista eta guztiz ierarkizatu baten argazkia erakusten digu horrek pertsonengan duen eragin negatiboarekin batera. Hala esango digu gizarte-ierarkia horretan nolabait ere “arrakasta” lortzen dutenei buruz: “Mundu mailan izaki horiek pribilegiatu batzuk direla pentsatzea da okerreana”.

Halako drama goibel bat izateko arriskua du berez gaiak, baina Nothombek, esan bezala, umorea tartekatzen du etengabe, ironiaz tratatzen ditu egoerarik latzenak. Gauzak neurritz kanpo aterako ditu, nahita, eta horrek egiten du erakargarri istorioa, protagonistarekiko halako identifikazio batera garamatzalarik. Esajerazioak, hitz-jokoak, burutazioak, denetik dauka haren umoreak. Estilo zuzena darabil gainera, tarteka elkarrizketa ugarirekin. Esate baterako, Saito jaunak –enpresako buruetako batek- Tsutomeru izena jarri zion bere semeari, hau da, “lan egin”. Edota zuzenean aginduak ematen dizkion andre gazteak, zeinaren edertasuna miretsi eta izaera hotza arbuiatuko duen, Fubuki izena du, alegia, “elur-ekaitza”. Hiru horien konbinazioak, hau da, umore eta ironia fina, estilo zuzena eta elkarrizketek egiten dute hain irakurgarri liburu hau, hasi eta bukatu arte segidan irakurtzen diren horietakoa. Ondo jasoak daude, gainera, horiek guztiak Joxan Elozegiren itzulpen-lan txukun eta zaindu honetan.

Erakutsia zigun lehendik ere Elosegik itzultzaile-sen berezi bat R. Queneau-ren Zazie metroan eleberri berezi hartan, ez gaitu, beraz, ezustean harrapatu itzulpen-lan sarigarri honek.

Eleberri honek Frantziako Akademiaren Sari nagusia jaso zuen bai eta Internet saria ere, irakurle internautek lehendabizikoz emana. Denbora luzean izan zen Frantzian liburu salduenetako bat eta orain euskaraz irakurtzeko luxua daukagu, luxuzko argitaletxe eta luxuzko itzultzaile baten eskutik.

Mikel Gamendia